

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

80

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 11koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 24ko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan publikotasun-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, onuradunen zerrenda, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak adierazten dituen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita publikoa ez den ondare dokumentala antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 24 Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 24ko Aginduaren babesean 2013ko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoa ez den ondare dokumentala antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 11.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2014ko urtarrilaren 10a, ostirala

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Ahoa Ahozko Historiaren Artxiboa	Ikus-ondarea zaintzea eta Euskadiko Trantsizioko ahozko iturriak biltzea	6.000,00
Arantzazuko Frantziskotar Probintzia	Arantzazuko Santutegiko Artxibo Historikoaren funtseko 2.000 irudi katalogatzea eta 2.000 orrialde digitalizatzea	6.200,00
Aranzadi Zientzia Elkartea	Jesus Elosegiren egunerokoak digitalizatzea eta edukia eta argazkiak alderatzea	5.000,00
Berrizko Mesedetako Misiolariak. La Vera Cruz komentua	Komentuko artxiboa antolatzea eta informatizatzea	8.000,00
Donostiako Orfeoia	Artxiboko argazki-funtsa eta posta-trukearen seriea katalogatzea eta digitalizatzea	11.000,00
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea	Bertsolaritza ondarearen Internet publikazioa: bertso antologiaren digitalizazioa eta argitalpena	16.000,00
Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra	Familia eta karlismoko artxiboak deskribatzea eta digitalizatzea (XIX-XX. mendeak)	16.000,00
Eusko Ikaskuntza	Eusko Ikaskuntzako artxiboko idazkaritza eta administrazio atalak katalogatzea eta digitalizatzea	7.000,00
Euskomedia Fundazioa	Urkijo funtsaren zati bat katalogatzea eta digitalizatzea	7.000,00
Gipuzkoa Abokatuen Elkargo Prestua	Artxibo historikoko 60 kutxa deskribatzea eta digitalizatzea (1950-85)	4.800,00
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	Nemesio Otaño Aitaren posta-trukea hustutzea (7. fasea)	11.000,00
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	XVII eta XVIII. mendeetako prokuradoreen posta-trukea hustutzea (4. eta azken fasea)	12.000,00

2014ko urtarrilaren 10a, ostirala

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	Funts historikoak digitalizatzea: Maleo artxiboa	18.000,00
Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa	600 erregistro katalogatzea eta artxiboko 6.000 irudi digitalizatzea	7.000,00
Jose Unanue Fundazioa	Arabako Servicio Provincial de Información-en albumak eta argitalpen sindikalak katalogatzea eta digitalizatzea, eta, langile militanteei egindako elkarrizketak transkribatzea	7.000,00
Lazkaoko Beneditarren Fundazioa	Ezkerreko abertzaletasun historikoaren funtsak antolatzea eta deskribatzea	19.000,00
Lenbur Fundazioa	Enpresako funtsak antolatzea eta katalogatzea	5.000,00
Murua Lezama-Leguizamon, Pedro M. ^a	Soroa eta Almenara artxiboak digitalizatzea	15.000,00
Sancho el Sabio Fundazioa	Ampuero familia artxiboa antolatzea	14.000,00
Sancho el Sabio Fundazioa	Asteguieta, Barrutia eta Largacha burdinola familia artxiboak digitalizatzea	8.000,00
Zavala Fernández de Heredia, Luis M. ^a	Euskadiko familia artxiboak berreskuratzeko laguntza-zerbitzua mantentzea	16.000,00
Zavala Fernández de Heredia, Luis M. ^a	Sarean hedatzeko datu-baseak handitzea eta iturri dokumentalak hautatzea	16.000,00
Zavala Fernández de Heredia, Luis M. ^a	Zavala - Idiaquez artxibo funtsa digitalizatzea	15.000,00
Guztira		250.000,00